

MUNHOA IKASTOLAKO

2* ALDIZKARIA

Aurkibidea:

- 1- Eguberri ikastolan
- 2.orr Ostiraletan oihane-
ra!
- 3.orr Trikuharrien ateral-
dia
- 4. orr Ikastolako eremuak
- 6-7 orr JOKOak
- 8orr Bertsoak!

Eguberri ikastolan

Ikastolan Eguberri ospatzen dugu abendoaren 19an .

Goizean, taloak prestatzen ditugu, arto eta gari irinarekin. Urtero Jon Harloucheten arto irina baliatzen dugu.

Arratsaldean ikastolatik abiatuko gira Olentzero-
ren xerka.

Denak baseritarrez beztituko gira eta kantatuko
ditugu Eguberriko kantuak eta Xanekin egin
ditugun bertsoak.

Azkenik Olentzero atxemanen dugu eta ikastola-
ra helduko gira.

Heltzean, denak kantinan jarriko gira eta banaz-
ka opariak idekiko ditugu.

Geroago, Olentzerok ikatza emanen dauku eta
janen dugu.

Atsaskarian taloak eta gaztainak janen ditugu eta
besta egingen dugu.

Ioritz





OSTIRALETAN OIHANERA!

Aurten, ostiraletan ikastolatik ateratzen gira. Txirrindulaz abiatzen gira ikastolatik Antxisketa oihanera joaiteko. Momentu goxo bat pasatzen dugu taldean, jostatuz, elgar lagunduz eta lasai egonez...

Bikain da !

Pako, Emma, Aimar

TRIKUHARRIEN ATERALDIA

Urriaren hamarrean trikuharrien ikustera joan ginen lehen mailako guziak Jean-Marc Irigoyen eta Jean-Michel Galantekin. Binaka ezarri ginen eta bide osoan hola egon ginen. Batzuentzat ibiltzea zaila izan zen eta beste batzuentzat errea. Joaitean, xeila bat bazen etxalde baten ondoan eta han argazki bat hartu ginuen. Artxuitako trikuharriaren ondoan zen harri haundiaren gainera igan ginen eta batzuk salto egin zuten belarrera. Itzuli osoa egin ondotik, eguerdi eta erditan arribatu ginen ikastolara. Uros eta gose ginen!

Ama ikastolako haurrek Azkarateko itzulia egin zuten Dominique Irigoyen eta Mike-lerekin. Azkarateko xokoak eta etxeak ezagutu zituzten.

Uxue eta Dioni



Xorien migrazioa

Xoriek Afrikara migrtazen dute. Milaka kilometro egiten dituzte harat arribatzeko. Xoriek migratzen dute hotza-rengatik eta janaria ukaiteko.

Migratzen duten xoriak dira: pekada, urtxoa, ahatea, sai xuria, amiamokoa, ttorttoila eta lertxuna.

Baina xori ainitzek ez dute migratzen saiak bezala.

Udaberrian xoriak beren herrialdeetara doaz.



Amaiur

KANPOKO TENOREA

Kanpoan trotinetarekin ibiltzen gira, eta pilotan eta futbolean ere jostatzen gira. Hamabost minutuz jostatzen gira eta, gero, gosaltzen dugu. Batzuetan, euria delarik barnera joaiten gira eta barnean puzzleekin jostatu eta marrazkiak egiten ditugu.

Laida

Ikastolako eremuak

Kanpoko tenoreetan fruituak jaten ditugu eta gero hostatzen gira. Gela sartzean lan egiten dugu. Biziki maite dut lan egitea. Lehenik astelehenean egunean egiten dugun egitaraua erraiten dugu. Ondotik matematikak egiten ditugu, gero hizkuntza, ondoren kanpoko tenorea da. Gero, 2 eta 3. urtekoak frantsesean dira. Goiza bukatzeko, kantinara joaten gira. Ttiapak siestara doaz eta haundiek kirola egiten dugu.

Eguna bukatzeko, atsalaskaria egiten dugu eta jokoak.

Ihitz



Ikastolako kanpoko tenoreak

Ikastolan kanpoko tenoreak goizetan eta arratsaldetan izaten dira eta hamabost minutu irauten dute.

Zer egiten dugu kanpoko tenoreetan? Goizetan palan eta korrika ari gira, eta aitatametan jostatzen gira. Gero, fruituak jaten ditugu. Binaka, kantineko mahaina ematen dugu Añarekin. Kanpoko tenorea izigarri laburra da! Eskubaloinean ere aritzen gira.

Batzuetan masaiak egiten ditugu. Baina euria delarik, aterpean egoiten gira, leku gutti da eta ez ditugu joko guziak egiten ahal. Ama eskolako haurrek gehienetan gutarik aparte egiten dituzte kanpoko tenoreak.

Maiena

ARTE LANAK

Artean argazkiak hartzen ditugu eta gero marrazten ditugu.

Herrian ibili ginen eta karrikako argazkiak hartu genituen. Liburu bat irakurtzen dugu, arteari buruz da « Aingeru galdue-
ren bila » deitzen da . Idazlea eta ilustra-
zailea Max Ducos deitzen da. Liburuak Eloi haurraren
museoko bisita aipatzen du. Museo barnean emazte
bat nigarrez entzun zuen Eloiak. Beregana joan zen Eloi
eta emaztea arte lan baten kuadroan zen. Emazteak
erran zion:

« -Nire aingerua galdu dut! Atzemaiten ahal duzu otoi?
Eta Eloiak erantzun zion:

-Bai atzemanen dut eta ekarriko dautzut. »

Eloi beste arte lan baten barnean sartu zen eta aingeru
hor zen. Ondotik emazteari eraman zion.



Orientazioa

Abenduaren bederatzian Antxisketa oihanera
joan ginen

Orientazioaren egitera. Ikastolan Aloñak bina-
kako taldeak egin zituen mutiko eta neskak naha-
sirik. Aloñak oihaneko mapa bat egin zuen eta
zenbakiekin zen paper bat gometxak ezartzeko.
Gometxak atxeman genituelarik gure paperran
kolatzen genituen. Gometxa bat kolatuta Uxue -
Luri erakutsi behar genuen beste gometxa bat-
zuen seka joan aintzin bederatzia gometxa sekatu
behar genituen joaitean bezala gure taldekoare-
kin sartu ginen.

Uxue Dioni eta Ainhoa



Urtxo ihizia

Ihizi denboran urtxoak arto alorretan
atxemaiten dira eta oihanetan. Arto lekuri-
ez bada, urtxo faltsuak ezartzen ahal dira
ihiztatzeko. Ihizia udazkenean da migrazioa
egiten dutelarik. Urtxoaren arroltzeak tti-
piak eta xuriak dira. Urtxoak armarekin eta
sarearekin hiltzen dira. Postetan kukutuz ere
ihiztatzen ahal dira.

Urtxoak Europako hegoalderuntz doaz eta
Euskal Herriko lepoetatik pasatzen dira.
Ihiztari batzuek lepoetatik ihiztatzen dute
postetan egonez. Urtxoak tiratzen dituztela-
rik batzuk hiltzen dira eta besteak ez. Tiratu
ondoan, urtxoen seka joan behar du ihiztariak
xakurrarekin edo gabe.

Xanti



Irulegiko irratia:

Ainhize gure botzen grabatzera heldu
da ikastolara. Taldeak egiten ditugu,
eta Ainhizek banaka hartzen ditu
taldeak. Galderak pausatzen ditu eta
guk erantzuten ditugu. Egun batzuen
buruan, gure botzak irratian entzuten
ditugu.


Milesker Ainhize!


Naia, Jokin eta Ioritz

JOKOAK

8								6
	9				4			
		7	3				4	1
	8		4				3	
3					5			
		4			2			5
7			8	2				3
		2		1		4	9	
9	3		6					7

1		2				3			4
					5		1		
		8							
					9	3			1
3		6	8				2		
	2					4			2
		3			6		9		
									8
	7				4				





ASMAKIZUNAK

Ene lehen alfabetoaren lehen letra da.

Ene bigarrenaren gainean beti idazten dugun lehen silaba da

Ene hirugarrena mahatsaren hiru garren silaba da.

Ene osoa murruetan ezartzen den okbiektu bat da.

Erantzuna azken orrialdean da.

Ene lehen minartzen dugularik erraiten dugun hitza da.

Ene bigarrenna alfabetoaren 19 eta 20 garren letrak dira.

Ene hirugarrena fruitu bat da.

Ene osoa zorroan dugu.

Erantzuna azken orrialdean da bestearekin.

	6			9			8	
	1				3			2
		4		5			1	
2			1					3
	3			6		4		
4							2	
		9		8				4
	2						3	
		5			1			9

2					1			3
	9		5	2				8
1								4
			4		3	2		
5				7			6	
	8							9
4		5						
				9			4	
3			1	5	2			7

OLENTZERORI BERTSOAK

Doinua : Gizona da zoroa

Xan Alkhaten
laguntzarekin
eginak

1/

Olentzerok ekartzen
du beti argia
batzuer ikatza ta
bester oparia
garai huntan haurrentzat
nolako magia
guretzat Eguberri
da besta handia ! (bis)

2/

Azkarateko plazan
gira gu elkartzen
bertsoak ta kantuak
ditugu kantatzen
gaztainak, matahamiak
ditugu dastatzen
ta elgarrekin dugu
denek plazer hartzen ! (bis)

3/

Makil ederrarekin
jin da Olentzero
opari handiekin
heldu da urtero
ta untsa pasatzea
dugu guk espero
gure bihotzak dira
izigarri bero ! (bis)

4/

Eguberri gogoan
dugu denek egun
fitexko opariak
ideki ditzagun
ondoan nahi ditugu
famili ta lagun
maite ditugunekin
ospatu dezagun ! (bis)